

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA

Hezkuntza

TUVISAren hiri-garraio publikorako laguntzak emateko deialdia eta berariazko oinarriak, 2016ko urritik abendurako eperako

2016ko uztailaren 29an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak TUVISAren hiri-garraio publikorako laguntzak emateko deialdia eta berariazko oinarriak, 2016ko urritik abendurako eperako.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 52.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 29an

*Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Administrazio Kudeaketako burua
NIEVES DÍAZ DE CORCUERA*

TUVISAren hiri-garraio publikorako laguntzak emateko berariazko oinarriak, 2016ko urritik abendurako eperako

1. Deialdiaren xedea

2016ko urritik abendura bitarteko epean TUVISAren hiri-garraio publikorako diru-laguntzak ematea, ikasleek baimendutako ikastetxeetarako joan-etorriak egin ditzaten 2016-2017 ikasturtean.

2. Onuradunak

Baimendutako ikastetxeren batean matrikulatuta dauden eta Gasteizko udalerrian erroldatuta ikasleek izan ahalko dute onuradun, 18 urtera arteko adin-mugarekin (1999an eta hurrengo urteetan jaiok), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko irailaren 2ko Agindua dela medio Eusko Jaurlaritzaren ikasketa-beka eskuratua eduki ala ez (aipatutako Aginduak, 2015-2016 ikasturtean unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko eta ikasketarako laguntzak arautu eta horren deialdia egiten du).

Deialditik kanpo geldituko dira ondokoak:

- Eusko Jaurlaritzak joan-etorrietarako ematen duen beka duten ikasleak.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutako eskola-garraioa duten ikastetxeetako ikasleak.

3. Aurrekontu-zuzkidura

Udalaren 2016rako aurrekontuko 2319 03 3261 43301 partidan 30.000,00 euroko zuzkidura dago deialdi honetarako.

4. Aurkeztu beharreko agiriak

2016ko urriaren 1etik aurrera egin ahal izango dute eskabidea interesdunek, Gizarte-etxee-tako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, bertan eskuratu ahal izango duten eskabide-orria baliatuz —9:30etik 20:00etara bitartean—, baita San Antonio kaleko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan ere 8:30etik 19:30era bitartean.

Ondoko agiriak aurkeztu beharko dira txartela eskatzeko:

— Eskaera berrien kasuan, eskabide-orria behar bezala beteta, edo aurreko deialdietako datuak aldatzeko eskabidea.

— Berriki ateratako argazki bat.

— Ikastetxeko Zuzendaritzaren jatorrizko ziurtagiria, non adierazten den ikaslea ikastetxean matrikulatuta dagoela, baita Eusko Jaurlaritzak 2015-2016 ikasturtean 18 urtetik beherako ikasleak eskolaratzeko emandako laguntzarik jaso duen ala ez.

5. Prezioa

Hileko bi tarifa-mota dago, eta bata edo bestea aplikatuko da ikastetxe baimenduan matrikulatutako ikasleak Eusko Jaurlaritzaren ikasketa-beka jaso duen ala ez aintzat hartuta:

— Beka dutenentzako hileko kuota: 12,00 euro.

— Beka ez dutenentzako hileko kuota: 20,00 euro.

“Beka dutenentzako hileko kuotaz” baliatu ahal izateko, ez dira aintzat hartuko testu-liburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitatiboki erabiltzeko Programaren bekei dagozkien ziurtagiriak.

Txartelaren alta eta horri dagokion ordainketa hilabete osorako izango da beti. Ez da onartuko egun kopuru jakin baterako ordainketa hainbanaturik.

6. Txartela ordaintzea

2016-2017 ikasturteko 2016ko urritik abendura bitarteko eperako balioko du txartelak; ordainketa bakarria egin beharko da, eta epe osorako ordaindu beharreko kopurua ondokoa izango da:

— Ikasle bekaduna: 36,00 euro.

— Bekarik ez duena: 60,00 euro.

Eskaera egiteko unean ordaindu ahal izango da finantza-entitateekin hitzartutako kreditu-txartel baten bidez. Nahi izenez gero, ordainagiria eskuratu eta ondokoetan ordain daiteke:

— Kutxabank, Laboral Kutxa, Bankoa, Caixabank, Caja Rural de Navarra eta Banco Santanderreko bulegoetan, ordainagiriak ordaintzeko haiek finkatzen duten ordutegian.

— Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan finantza-entitateekin hitzartutako kreditu-txartelaren bidez. Ordutegia: 9:30etik 19:30era, astelehenetik ostiralera, lan-egunetan.

— Interneten bidez ondoko webean: www.vitoria-gasteiz.org/ogasuna.

— Diru-bilketa Zerbitzura posta-igorpena eginez (Teodoro Dublang Margolariaren kaleko 25. zenbakia, behea).

Txartela edukitzeko nahitaezkoa izango da ordainagiria ordaintzea.

7. Txartelari uko egitea

Ordainketa egin ondoren, ezingo zaio hiri-garraiorako (TUVISA) ikasle-txartelari uko egin.

8. Txartela erabiltzeko baldintzak

— Txartela ez da baliagarria izango titularraren izena eta identifikazioa behar bezala ikusten ez badira.

— Txartela pertsonala da, norberak eta ez besteek erabiltzekoa.

- Titularrak ez du lehentasunik izango gainerako erabiltzaileen aldean.
- Nahitaezkoa izango da autobusera igotzean TUVISAko langileari erakustea. Erabiltzeko baldintzetakoren bat betetzen ez bada, haren eskura geratu ahalko da txartela, eta, arau-haustearen larritasunaren arabera, titularrari ez zaio hilabete baino lehenago itzuliko.
- Abonuak manipulaturik gero, txartela behin betiko kenduko zaio erabiltzaileari eta, horrez gain, egokitzat jotzen diren legezko ekintzak ere egikaritu ahalko dira.
- Txartela galdu edo hondatuz gero, txartelaren kopia bat egingo da. Ikaslearen amak, aitak edo legezko tutoreek eskatu beharko dute. Txartel berriaren prezioa 10,00 euro da. Ordainketa Hezkuntza Zerbitzuaren ondoko kontuan egingo da: Kutxabank ES03 2095 0611 03 1090952416.
- Erabiltzaileari txartela lapurtzen badiote, dagokion salaketa aurkeztu beharko du. Kasu horretan, txartel berria dohain izango da.
- Gasteizko Hiri Garraioak SA enpresa eta Udaleko Hezkuntza Zerbitzua ez dira izango hiri-garraioa erabiltzearen ondorioz txartelaren jabeak jasan litzakeen kalteen erantzule.

9. Diru-laguntzak emateko prozedura

Interesdunen eskaeraren bidez emango zio hasiera laguntza emateko prozedurari. Diru-laguntza besterik gabe emango da deialdi honetan finkatutako baldintzak betetzen direnean eta 2016-2017 ikasturterako eskola-garraiorako txartela ematen denean 2016ko urritik abendurako eperako.

Organo instrukzio-egilea Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Administrazio eta Kudeaketa zerbitziburua izango da, eta datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak gauzatu dituzte ofizioz. Izan ere, datu horien arabera emango da Vitoria-Gasteizko hiri-garraio urbanoa 2016-2017 ikasturtean erabiltzeko ikasle-txartela 2016ko urritik abendura bitarteko eperako.

Nolanahi ere, diru-laguntza emateko prozedura 2016ko abenduaren 31n amaituko da, txartela erabiltzeko azken egunean alegia.

10. Konkurrentziarako aukera

Ematen den laguntza bateraezin izango da helburu berarekin beste Administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuek ematen dituztenekin. Halakorik gertatzen bada, txartela emateari ezetz esango zaio, eta txartela emateagatik zeharka ordaindutako kopurua itzuli beharko da.

11. Pertsona onuradunen betebeharrak

– Vitoria-Gasteizko Udalaren kontu-hartzailletza nagusiari dagozkion ikuskatzeko eta finantza-kontrolerako lanak onartzea eta horretan laguntzea.

– Helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, jakinaraztea.

– Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuari jakinaraztea, baita eskatzen den beste edozein informazio ere.

12. Itzultzea

Zeharko jaso den dirua itzuli beharko da eta, gainera, berandutze-interesak ere exijituko dira txartela ematen den unetik, Ordenantza honetako 20. artikuluan xedatutako egoeraren bat ematen bada. Itzultzeko prozedura aipatutako udal Ordenantzak araututakoaren arabera izango da.

13. Arau-haustekak eta zigorrak

Arau-hausteen eta zigorren araubidea Vitoria-Gasteizko Udalaren diru-laguntzaren udal Ordenantzak xedatutakora egokitu da.

14. Arautegi aplikagarria

Oinarri honetan aurreikusten ez diren alderdiei dagokienez, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, aplikatuko da, Herri Administrazioek emandakoa diru-laguntzen kasuan aplikagarria delako.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxearen ziurtagiria, (TUVISA) Vitoria-Gasteizko hiri garraiorako ikasle txartela eskuratzeko Certificado del Centro donde está matriculado el alumno o alumna para la obtención de la tarjeta de estudiante para el transporte urbano de Vitoria-Gasteiz (TUVISA)

2016ko urritik abendura – Octubre a diciembre de 2016

Hezkuntza Zerbitzua
Servicio de Educación

Telefona - Teléfono: 945 16 1616

I. ERANSKINA - ANEXO I

Jaunak/Andreak - D./D^a

Ikastetxe honetako zuzendaria den aldetik - en calidad de Director/a del Centro

Ikasle hau (izen-deiturak) bertan matrikulatuta dagoelarik - donde está matriculado/a el/la alumno/a (Nombre y apellidos)

ZIURTATZEN - CERTIFICO

Beka/Beca:

BAI, ikasleak Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailbuaren 2015eko irailaren 2ko Aginduaren bidez unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-laguntzetarako 2015/2016 ikasturteko deialdiaren barruan) - *Sí, ha sido beneficiario/a de la ayuda del Gobierno Vasco según Orden de 2 de septiembre de 2015 de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura por la que se regula y convoca la concesión de ayudas al estudio para estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2015/16.*

EZ, ikasleak ez du aipaturako laguntzarik jaso – *NO ha sido beneficiario/a de la ayuda arriba indicada.*

Garraioa/Transporte:

BAI, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren diruz lagundutako eskola-garraioaren erabiltzailea da. - *Sí, es usuario/a de transporte escolar financiado por el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco.*

EZ, ikaslea ez da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren diruz lagundutako eskola-garraioaren erabiltzailea. - *NO es usuario/a de transporte escolar financiado por el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco.*

Vitoria-Gasteizen, 2016ko

(a)ren

(e)an

En Vitoria-Gasteiz, a de

de 2016

Zuzendaritza (Ikastetxearen izenpea eta zigilua) - La Dirección (Firma y sello del Centro)

0500100000

Zure datuak udal kudeaketak dituen zereginak ahalbidetzen dituzten fitxategietan sartuko dira. 15/99 Lege Organikoak aitortzen dituen eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Vitoria-Gasteiz Udaleko Argibide Bulegora.

Sus datos personales serán incluidos en ficheros cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal. Puede Ud. ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/99 dirigiéndose a las Oficinas de Información del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

(TUVISA) Vitoria-Gasteizko hiri garraiorako ikasle txartela eskuratzeko eskabidea *Solicitud de tarjeta de estudiante para el transporte urbano de Vitoria-Gasteiz (TUVISA)*

2016ko urritik abendura – Octubre a diciembre de 2016

Hezkuntza Zerbitzua
Servicio de Educación

Telefonoa - Teléfono: 945 16 16 16

II. ERANSKINA - ANEXO II

HAURRAREN DATUAK - DATOS PERSONALES DEL ALUMNO/A

Lehen deitura - Primer apellido	Bigarren deitura - Segundo apellido	Izena - Nombre
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Jaioteguna - Fecha de nacimiento	Nortasun agiria - DNI	Harremanetarako telefonoak - Teléfonos contacto
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Helbidea - Domicilio	Posta kodea - Código postal	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Ikastetxea - Centro de estudios	Ikasturtea - Curso	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	

GURASOEN EDO TUTOREEN DATUAK - DATOS DE MADRE, PADRE O TUTOR/A

Ama, aita edo tutorearen izen-abizenak - Apellidos/nombre de madre, padre o tutor/a	Nortasun agiria - D.N.I.
<input type="text"/>	<input type="text"/>
Helbidea - Domicilio	Posta kodea - Código postal
<input type="text"/>	<input type="text"/>

BANKETXEAREN BAIMENA - AUTORIZACIÓN BANCARIA

Jabearen izen-abizenak - Apellidos y nombre del titular o de la titular	Nortasun agiria - D.N.I.
<input type="text"/>	<input type="text"/>

Erakundearen kodea Código de la entidad	Sukurtsalaren kodea Código de la sucursal	Control-kodea Código control	Kontu korrontearen kodea - Código de cuenta
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Banketxearen zigilua - Sello del banco

Vitoria-Gasteizen, 2016ko (a)ren (e)an
En Vitoria-Gasteiz, a de de 2016

Ama, aita edo tutorearen sinadura - Firma de madre, padre o tutor/a

AGIRIAK - DOCUMENTACIÓN

- Duela gutxi ateratako argazkia - Una fotografía reciente.
- Ikastetxearen ziurtagia (jatorrizkoa), ikaslea bertan matrikulatuta dagoela eta Eusko Jaurlaritzaren beka duen ala ez adierazten duena - Certificado original del Centro en el que conste que la alumna o alumno está matriculado, así como si ha recibido o no beca por parte del Gobierno Vasco.

05/017/00000

Zure datuak udal kudeaketak dituen zereginak ahalbidetzen dituzten fitxategietan sartuko dira.
15/99 Lege Organikoak aitortzen dituen eskubidez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Vitoria-Gasteiz Udaleko Argibide Bulegora.

Sus datos personales serán incluidos en ficheros cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal. Puede Ud. ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/99 dirigiéndose a las Oficinas de Información del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.